



Bergaran, 2025eko urriaren 2an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna NAN 72.581.398E duena, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako San Martin Plaza, z/g-ean egoitza izan eta P- 2007900-J IFZ zenbakia duen Bergarako Udalaren izenean.

Beste alde batetik Loreto Aramendi Inchauspe, NAN 44.134.556V duena, Donostiako Katalina Eleizegi, 2- 20009 Donostia (Gipuzkoa) egoitza izan eta G20558573 IFZa duen Fray Joseph de Echevarria de Amigos del Organo de Gipuzkoa erakundearen izenean.

Azken horrek zinpean alkate jaunaren aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuko kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa.

ADIERAZI DUTE

- 1.-Fray Josep de Echeverria de Amigos del Organo irabazteko asmorik gabeko elkarte da.
 - 2.-Fray Josep de Echeverria de Amigos del Organo elkarte Gipuzkoa mailan mugitzen da eta bere helburu nagusia da organoa ezagutzera ematea. Horretarako lan desberdinak egiten ditu: organo kontzertuak eman, zikloak antolatu, organo jotzaileei ikastaroak antolatu eta abar.
 - 3.-Azken 25 urteotan Azkoitiko, Bergarako eta Azpeitiko Udalek urtero antolatzen dute organo erromantikoaren nazioarteko zikloa elkarlanean, eta zikloa koordinatzeko lanak Fray Joseph de Echevarria de Amigos del Organo de Gipuzkoa erakundeko ordezkariak egiten dituzte.
 - 4.-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorak 22.2 artikuluan ezartzen du zuzenean eman ahaliko direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, dirulaguntza horien hitzarmenetan eta araudi arautzailean jasotako baldintzen arabera, eta 28 artikuluan ezartzen du hitzarmenak ohiko tresna izango direla dirulaguntza horiek bideratzeko.
- Halaber, Dirulaguntzan Lege Orokorren Erregelamenduak 66. artikuluan aurreikusteen du horrelako kasuetan emakidaren egintzak edo hitzarmenak emakidaren oinarri arautzaile-izaera izango duela Dirulaguntzan Lege Orokorrean ezarritakoaren ondorioetarako, eta, berorren edukia zehazten duela.
- Azkenik Bergarako udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorak ere gauza bera adierazten du 20. artikuluan eta zehaztu hitzarmenak gutxienez jaso beharko lukeena.

- 5.- Udalak indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan sartuta dauka Fray Joseph de Echevarria de Amigos del Organo de Gipuzkoa elkartearen aldeko dirulaguntza organo



emanaldiak Bergaran antolatzeke aipatutako ziko horren barruan. Halaber, 2025eko aurrekontuan 5.500 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusita dago, eta hitzarmen honen helburua dela dirulaguntza hori elkarteari bideratzea eta onuradunak bere gain hartzen dituen betebeharrak zehaztea.

Hala, bada, adierazitako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Aurten Bergaran honako kontzertuak izango dira:

- Urriak 5 OSCAR RODRÍGUEZ organo-jolea eta MARINA CABAU sopranoa
- Urriak 12 ALMA BETTANCOURT organo-joleak.
- Urriak 19 THOMAS OSPITAL organo-jolea.

Kontzertu guztiak Bergarako San Pedro parrokian izango dira arratsaldeko 18:30ean.

Kontzertu horiek aurrera eramateko eta zikloan parte hartuko duten musikariei ordaintzeko eta zerbitzu grafikoen gastuei aurre egiteko Bergarako Udalak 5.500€ko diru-ekarpena egingo dio Fray Joseph de Echevarria de Amigos del Organo de Gipuzkoa erakundeari.

Zenbateko horretan kontzeptu guztiak daude sartuta, besteak beste, ondorengoak:

- Taldearen eta honek kontratatu dezakeen personal teknikoaren lansariak, gizarte-segurantzako gastuak.

BIGARRENA.- Bergarako Udalak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

1.- 5.500,00€-ko diru-ekarpena egitea Fray Joseph de Echevarria de Amigos del Organo de Gipuzkoa taldeari Bergaran egingo diren kontzertuak aurrera eramateko. Ordainketa transferentzia bidez egingo da, ES61-2095/5013/70/9119060932 kontu korrante zenbakian. Ekarpen hori bi zatitan ordainduko zaio. Lehen zatia %60ekoa izango da (3.300,00€), eta elkartea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela ziurtatu eta hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko zaio.

Bigarren zatia, %40a, (2.200,00€) honako dokumentu hauek aurkeztu ondoren:

- Egindako jarduera guztien laburpen memoria.
 - Izandako sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa eta banaketa. Jardueren gastuaren justifikazioa eta fakturen eta dokumentuen zerrenda, diruzainak sinatua.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo laguntza batzuen zerrenda zehatza eta haien zenbatekoa eta jatorria. Dagokion dokumentazioa ere erantsi behar da. Bestelako laguntzarik ez bada jaso, hala adierazi behar da.
- 2.- Hala eskatuz gero, dagokion kuota ordaintzea Sociedad General de Autores-eri.
- 3.- Bere gain hartzea gerta daitekeen edozein gertakari, mota eta zenbaterainokoa edozein izanda ere. Halere, taldearena den materialen edo langileren batek hirugarrenei kalteak eginez gero, taldeak erantzungo du kalte horien aurrean.
- 4.- Ikuskizunaren publizitateaz arduratzea.
- 5.- Ondoko baliabide teknikoak taldearen eskura jartzea:
- o Urriaren 5, 12 eta 19ko kontzertuetarako pantaila jartzea, eta horri dagokion ordainketa beregain hartzea.



Bergarako
Udala

HIRUGARRENA: Ezingo dira aldatu ikuskizunaren egunak, lekuak eta orduak.

LAUGARRENA: Ez Udalari ez taldeari egotzi ezin zaien arrazoi batengatik kontzertu baten data baino 6 egun baino gutxiago falta direla ikuskizuna bertan behera geldituko balitz, kontzertu hori aurrera eramateko elkarteak egindako justifikatutako gastuak udalak diruz lagunduko ditu, honako muga honekin: bertan behera geratzen den kontzertu bakoitzagatik aurkeztutako aurrekontuaren %50a.

6 egun baino gehiago falta direla kontzertu egunerako bertan behera geratzen bada, Udalak kontzertu horretarako dirulaguntzarik ez du emango.

BOSGARRENA: Parte batek hitzarmen honetan adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, besteak betearazteko eskubidea izango du edo hitzarmena bertan behera uztekoa, betiere ez-betetze horrek sor ditzakeen kalte-ordainen ekintzen eragozpenik gabe.

SEIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra, Bergarako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan.

Bergarako Udala
Gorka Artola Alberdi

Fray Joseph de Echevarria
de Amigos del Organo de Gipuzkoa
Loreto Aramendi Inchauspe



EKS | CSV: SINA32121495-b292-49af-b005-b1fc56b3602e

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410>

